

Betirako gauza garrantzitsuenak ikasita dauzkate

Ni txikitan ikasitakoaz
gogoratzen naiz oraindik eta
berdin gerta litzaieke neska-
mutil hauei

2004 Ira 9

Gurutziaga eliza, Aieteko parrokia,
oso ezaguna da; orain dela 35 urte,
hor jarri zen martxan Axular Lizeoa
zazpi ikaslerekin. Orain, Esther
Patrocinio Olaizolak, Billabonan

jaioa, katekesia ematen du euskaraz parroki horretan.

Esther, nolakoa izan da parrokoarekin lankidetza?

Orain dela bi urte hasi nintzen katekesia ematen Aiete Gurutziaga Parrokian, zeren eta nire lankide batek esan zidan parrokia horretan katekistak behar zituztela. Orduan parrokoarekin hitzegin ondoren, berehala hasi nintzen, lehenengo urtean Sendotza taldearekin, gaztelaniaz, eta hurrengo urtean Lehenengo Jaunartzeko talde batekin, euskaraz.

Hilabetero bi aldiz parrokoarekin elkartzen ginen katekista guztiok, talde bakoitzaren egoera azaltzeko, esperientziak laburtzeko eta ekitaldiak denon artean prestatzeko: gabonetako jaialdia, "koloniak", eta abar. Han ere parrokoak adierazten zigun katekistei klasea emateko era,

eta neska-mutilekin sortutako arazoak nola konpondu.

Zein izan da katekesiaren mamia?

Gure helburua aurrei Jesukristoren bizitza ezagutaraztea izan zen, hau da, Bere hurbiltasuna eta adiskidetasuna poliki-poliki irakastea. Horregatik katekesia hasi eta bukatu baino lehen otoitz egiten genuen, eta Sakramentu bakoitza azaldu nituen, batez ere Eukaristia eta Penitentzia. Batzuetan parrokoarekin elizara joaten ginen eta berak Sagrarioaren aurrean bere azalketak egiten zituen klasean emandakoak osatzeko.

Zergatik eman pare bat ordu astero eginkizun honetan, zortzi orduz lan egin ondoren? Hain garrantzitsua al da?

Bai, hamaika neska-mutilei katekesia emateko ilusio handia behar da. Nahiko bihurriak ziren gainera, eta

asteartero ingelesa edo musikazko klasera joanez gero, nekatuta etortzen ziren katekesia hartzera, eta nik oso ondo prestatu behar nituen klaseak beren arreta erakartzeko. Batzutan, beste neska batekin joaten nintzen eta bion artean errezagoa zen.

Nire helburuetako bat Ama Birjinari buruz asko hitzegitea zen, Zeruko Ama dela eta. Eta Aita Santuak Elizan duen betekizuna azaldu eta berarengan egunero otoitz egitean saiatu nintzen baita ere.

Ni txikitan katekesian ikasitakoaz gauza askoz gogoratzen naiz oraindik, eta berdin gerta litzateke neska-mutil hauekin; betirako gauza garrantzitsuenak ikasita dauzkate.

Irakasleak ere zerbait ikasi dezake?

Noski baietz. Lehendabizi, beste katekisten jarrera ikusteaz, zeren

beti neska-mutilen kristau heziketa
hobetzeko prest bait zeuden.

Beste aldetik, ikastetxek
desberdintasunak asko nabari-
nituen; bakarrik hiru ume zihoazen
erlijiozko irakasgaia ematen zuen
ikastetxe batetara. Eta hauek
Ebanjelioa pixka bat ezagutzen
zuten, baina besteek ezer gutxi.

Gero ere, apaizak, urtez urte, ilusio
berdinarekin katekesiazko kurtsoak
prestatzeari jarraitzen dio. Berak
eman ninduen harrera ona
ikusterakoan asko ikasi nuen nik ere.

Umeen gurasoak bat datoz zuk erakutsitakoarekin?

Bazeuden guraso batzuk hilabetero
apaizarekin bilerara joaten zirenak,
baina gehienak ez. Aurren ama
batzuk ezagutu nituen, oso atseginak
eta esker onekoak katekistarekin,
baina beren seme-alaben portaeraz
gain, kristau bizitza ez zuen

garrantzirik beraientzat, eta horrela zailagoa da umeentzat katekesian ikasitakoa praktikan jartzea.

Lehenengo Jaunartzearen egunean aita-ama guztiak oso pozik zeuden eta zeremonia osoan lagunartean egon ginen denok.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/betirako-gauza-
garrantzitsuenak-ikasita-dauzkate/](https://opusdei.org/eu-es/article/betirako-gauza-garrantzitsuenak-ikasita-dauzkate/)
(2026 Mar 10)